

OINARRIZKO BALIABIDEAK

Enpresa bat aurrera ateratzeko, diru inbertsioak derrigorrezkoak dira. Horregatik, Enpresak hainbat metodo eta estrategia desberdin erabiltzen ditu diru hau eskuratzeko:

1. Kapitala

Kapitala ekonomian erabiltzen den kontzeptu oso garrantzitsua da. Bakoitzak jartzen duen diru kantitatea Enpresa aurrera eramateko.


Gure kasuan bakoitzak 1000€ jarriko ditu eta horrekin ondo hastea espero dugu.



2. Banku-mailegua

Finantza-produktu bat da, erabiltzaileari hasiera batean diru kopuru finko bat ematen diona, kopuru hori gehi hitzartutako interesak epe jakin batean itzultzeko baldintzarekin. Baina badira baldintza batzuk: adinez nagusi izatea, aurreko beste mailegu batzuk ez egotea eta kaudimena eta errenta egonkorra izatea.

Gure kasuan, ez dugu eskatuko, hasiera batean jarritako kapitalarekin nahiko dugu eta. Baina urte batzuetan ez dakigu ze egoera edukiko dugun, beraz aukera moduan uzten dugu.



3. Diru-laguntza

Diru-laguntzak; gobernuek, erakundeek edo beste entitate batzuek emandako laguntza ekonomikoak dira, helburu edo behar jakin bat betetzeko diru moduan jasotzen direnak.




Pertsonak, enpresak edo erakundeak izan daitezke laguntza hauen onuradunak, eta eskuratzeko, normalean baldintza edo irizpide batzuk bete behar izaten dira.

Emandako diru laguntzak, probetxu on bat atera badiote enpresari eta enpresak arrakastak izan badu, ez dituzte diru horiek itzuli behar. Baina enpresa ez bada ondo atera eta ez badu probetxu handirik atera emandako diru laguntzak itzuli behar dira.

Banku maileguarekin bezala, oraingoz ez ditugu diru laguntzarik jasotzen, baina etorkizunerako aukera moduan geratzen da.

4. Crowdfunding

Funtsak biltzeko metodo bat da, non pertsonak edo enpresek kapitala biltzen duten pertsona ugariaren ekarpen txikien bidez, normalean lineako plataformen bidez. Sistema honek proiektuak, ideiak, produktuak edo kausak finantzatzeko aukera ematen du, banku edo inbertitzaile tradizionalen menpe egon gabe. Hainbat plataforma daude.



Dirua biltzeko metodo hau berria da guretzak, horregatik, oraingoz ez dugu aplikatuko, baina etorkizunean informazio gehiago eskuratuz erabil dezakegun metodoa da.

5. Inbertsoreak

Inbertitzaileak negozio, proiektu edo aktibo finantzario batean kapitala ematen duten pertsonak, enpresak edo erakundeak dira, trukean etekina edo errentagarritasuna lortzeko itxaropenarekin. Hainbat inbertitzaile mota daude, bakoitzak bere helburu eta estrategiekin, eta, oro har, beren arrisku-profilera eta inbertsio-horizontera hobekien egokitzen diren aukerak aukeratzen dituzte.



Inbertsoreak guk geu izango gara, hasiera batean inbertsore hauen dirurik gabe hasiko gara, baina etorkizunean, enpresak aldaketa handi bat egin nahi izanez gero metodo aproposa izango litzateke inbertsoren laguntza bilatzea.